

1 – Kalifikazioa Zehazteko Irizpideak

Hainbat irizpide daude ikasleen azken nota erabakitzeko:

- Zeharkako gaitasunek eta gaitasun teknikoek azken notan izango duten pisua, modulu bakoitzean. Nahitaezkoa da zeharkako gaitasunei gutxieneko %20ko pisua esleitzea.
- Ikaskuntza-emaitza bakoitzari emango zaion balioa.
- Garrantzitsua da halaber, ikaskuntza zein momentuan eta zein tresnarekin jasoko den erabakitzea. Hau da, ikasleak lortu duen ikaskuntza maila ezartzeko, zein ebidentzian oinarrituko garen.
- Eta, azkenik, ikasleek zein neurritako ikaskuntza lortzea espero den.

Garrantzitsua da irakasle-taldeak eta ikasleek modulu bakoitzeko kalifikazioaren trazabilitatea eta beharrezko informazioa eskura izatea ikasturtean zehar. Horrela, amaierako nota ikaskuntza-prozesu ebolutibo eta kolaboratibo baten emaitza izango da.

AMAIERAKO NOTA ZEHAZTEKO IRIZPIDEAK



- | | |
|---|--|
| ■ Gutxieneko gaitasun tekniko eta zeharkakoak modulu bakoitzeko | ■ Ikaskuntza jasotzeko momentu eta tresnak |
| ■ Zein Ikaskuntza-emaitzak duen garrantzi gehiago modulu bakoitzean | ➢ Ebidentziak |
| | ■ Lortu nahi den ikaskuntza maila |

